

Ines Bengoak "Kamishibai" ipuinak kontatuko ditu bihar Ibarako liburutegian

IBARRA. Ibarako udal liburutegiak antolatuta, bihar ipuin kontalariaren saioa izango da, 18.00etatik aurrera, Benito Izagirre kultur etxean.

Kamishibai izena daraman saioa Ines Bengoak zuzenduko du eta hiru eta bost urte bitarteko haurrei zuzenduta dago.

Kamishibai ipuinak kontatzeko modua da eta Japoniatik ekarritako teknika bat da. Ipuinak entzun eta ikusi egiten dira kontatzen diren bitartean, irudiak erabiltzen baitira lagungarri gisa. Japoniako ohitura zaharretik ekarritako ipuinak kontatzen ditu Ines Bengoa aktore eta ipuin kontalariak, baita duela gutxi sortutako istoriotxoak ere, eta horietan umeek kontaketa parte hartzen dute. Modu honetara, irudiek irudimenarekin bidaiatzera, jolastera, barre egitera eta parte hartzera gonbidatzen gaituztela dio berak. Ines Bengoa Lizarrako ipuin kontalaria da. Nafarroako Antzerki Eskolan sortua, 2002. urteaz geroztik ari da ipuinak kontatzen Euskal Herriko liburutegietan, eskola, kultur etxe eta ludoteketan. 'Inork ez dit irakatsi ipuinak nola kontatu behar diren, besteei ikusten ikasi nuen', dio.